

Giza habitat ezkutatua erakusketa (euskaraz eta gaztelaniaz)



Zure herrian erakusketa ibiltaria jarri eta bertan bisita gidatuak egiteko

Proposamena

2023 / 2024

ERAKUSKETA HORMAIRUDIAK

Erakusketa 14 panel edo hormairudiz osatua dago. Lehenengoak ongi etorria ematen dio bisitariari lau hizkuntzetan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Beste 13etan, "habitat" jakin batean gizakiak jokatu duen historia kontatzen da "ekologian ere erabiltzen den habitat kontzeptuarekin batera gizakiak sortutako hizkuntza, kultura eta erakundeak aztertuz, XIX. mendera arte".

"Klima, paisaia eta izaki bizidunekin batera, giza habitataren parte banandu ezinak dira: hizkuntza, kultura eta erakundeak"

ZER KOMUNIKATU NAHI DU

Erakusketa honek Mikel Laboak musikatu zuen Xabier Leteren poema bat du inspirazio iturri:

"Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai, hauts hartatikan uste gabean noizpait giñaden gu ernai".

Giza komunitate jakin bat, habitat jakin batean sortu zen, lurralde hutsarena baino dimentsio zabalago batean.

"Gizonak (Gizakik) badu inguru latz bat menperatzeko premia, burruka hortan bizi da eta hori du bere egia. Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu, jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu lege berriak noizpait erditu hortan jokatuz bizia".

Horrela, ekin eta ekin, jokatzen da gure historia. Edwar Wadie Said, Palestinan jaiotako estatubatuarrak esaten zuen bezala "Herri bati definizioa emateko tresnarik eraginkorrena haren historia kontatzea da"

Hortaz,

"Bizi nahi duen herriak bere historia kontatu behar du"

ESKAITZEN DIREN KULTUR ZERBITZUAK

Ezkutatu diguten historia. Erakusketa ibiltaria, hitzaldiak eta ikastaro saioak biltzen dituen egitaraua antolatzen dute Hernani Errotzenek eta Nabarralde Fundazioak, tokian tokiko beharretara egokitu daitezkeenak.

ERAKUSKETA

Giza habitat ezkutatua erakusketa honek gure historiaren mugarri garrantzitsuenak erakusten ditu. Euskal Herriko historiaren gakoak eskaintzen dituen erakusketa da: euskal nafarren habitata eta lurraldetasuna; mugarriak izan diren datak, pertsonaiak, eta gertaera garrantzitsuak modu grafiko argi eta atseginean kontatuak

Honen bidez, erakusketak mendeetako historia laburtua erakusten du, modu argiz, esanguratsuz, eta batik bat, pedagogikoz egina.

Bisita gidatua egiteko aukera ere eskaintzen du programa honek modu presentzialean edota internetez, QR sistemaren bidez.

IKASTAROAK

“Euskal Herria / Nafarroaren historia”. Gure historiaren irakurketa orokor eta sintetikoa edonorentzat eskuragarri.

Ikastaroen helburuak dira, Euskal Herriko historian erabakigarriak izan diren gertakariak berreskuratzea, lantzea eta ikuspegi propiotik gaur egungo errealitatearen kontakizuna egitea.

Ikastaroak presentzialak eta Internet bidezkoak (online) dira. Jakinmina duen edonorentzat eskuragarri, ez adituentzat soilik.

Hernani Errotzen eta Nabarralde Fundazioak elkarlanean tokian tokiko beharretara egokituko da.

AURREKONTUA

1.1. Erakusketa soilik (15 egun)

1.2 Erakusketarekin (15 egun) batera, irekiera eta amaiera egunetan ikustaldi gidatuak

2.1 Bisitaldi gidatuko gehigarri bakoitza, eskoletako ikasle, irakasle, erakunde, enpresa edo talde antolatutako jendearentzat

3.1 Ikastaro presentzialak (4 saio bina ordukoak, 8 ordu)

OHARRAK:

1.- Nabarralde Fundazioak eta Errotzen Kultur elkarteak, ekitaldi hauetarako, BEZa salbuetsia dute.

2.- Kasuan kasuko zerbitzua, prezioak eta baldintzak bereiz azter daitezke.

3.- Bestelako zerbitzu kulturalak ere eskaini ditzakegu, atalez atal aztertu eta proiektuak eskainiz.

HARREMANETARAKO:

Hernani Errotzen: Latsunbe, 28 Avemaria etxea, 20120 Hernani

T. 943 55 60 11 / 626 67 18 17

herriaerrotzen@gmail.com

Nabarralde Fundazioa: Bidadankoze kalea, 3 behe 31014 Iruñea

T. 948 211 057

Nabarralde.info@nabarralde.eus

HORMAIRUDI EDO PANELAK

	 <p>HERNANI ERROTZEN MEMORIA HISTORIKOA</p>	 <p>Habitat Ezkutu diguten historia</p>	 <p>Habitat - 1 ESPANIAN BALENTZURU EGITEAN DI GIZA KOMUNITATEAREN BIZITAI, BILAKER, KOMUNITATEK GAITASUNA DI BIR EGIN PASTAK KUERTAZKO ETA ERALDIZTZEKO</p>
 <p>Habitat - 2</p>	 <p>Nazioa / Herria BEZI NABI DUTEN PERBIK BESE HISTORIA KONTATU BEHAR DU</p>	 <p>Eromatarren aroa ERROMATARRAK "HABITAT" DUTEN BESE KOMUNITATEAREN BIZITAIEN BILAKER, ERROTZE, ERROTZE BIR EGIN PASTAK KUERTAZKO ETA ERALDIZTZEKO</p>	 <p>Eresumen bilakaera NABARRA, ERROMATARR, INDIARRAK ETA ESTATARRAK EZ DIRA ERROMATARRAK</p>
 <p>258 nafar gaztelu</p>	 <p>Euskararen herria "HORNINTZA EZ DA GAIKORRO DARGAZKORRIK EGITAN BAZOGIK ETA EZ DARGAZKORRIK BAZOGIK BAZOGIK"</p>	 <p>Aldi guztietatik hortzkatzen naute UTRINQUE RODITUR</p>	 <p>Oroimenaren arbol HISTORIA, EZKUTUA, ZERBITZUAK, ERROTZE, ERROTZE BIR EGIN PASTAK KUERTAZKO ETA ERALDIZTZEKO</p>
 <p>Foruak NOU HORNINTZA, HAN HERRIA; NOU GAZTELAK, HAN LEGEA</p>	 <p>Hiribildu foruak ZAZPIENHARRAN DUTEN NAGESA ETXEA DA -BORTXA-EZINA DA- BAITA BERTAN BIZI DENA ERE</p>	 <p>Foruen defentsa - 1 GERRA FORUAK BAITA FRANTZESARRAK BAZOGIK BAZOGIK ERROTZE BIR EGIN PASTAK KUERTAZKO ETA ERALDIZTZEKO</p>	 <p>Foruen defentsa - 2 KARLISTARRAK BAZOGIK BAZOGIK ERROTZE BIR EGIN PASTAK KUERTAZKO ETA ERALDIZTZEKO</p>